



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 23koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematu behar dituzten merezimenduengatik izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)

Hezkuntzako Sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 9. oinarrian zehaztutakoarekin bat etorritik, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2024ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez, Langileriak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu beharreko merezimenduengatik izangaiek lortutako behin behineko puntuazioak argitaratu ziren. Agindu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuak deitu ziren.

Behin-behineko puntuazio horien aurka hautagaiek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi dira eta, era berean, zenbait kasutan antzemandako akatsak zuzendu dira. Azaldutako guztiaren ondorioz, behin-behinean emandako puntuazioan aldaketak egin behar izan dira.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Argitara ematea izangaiek, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematutako merezimenduengatik lortutako behin betiko puntuazioak (I., II. eta III. eranskinetako merezimenduak, salbu eta etengabeko prestakuntza, argitalpenak eta berrikuntza- eta esperimenduzko proiektuak), Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak).

Bigarrena.– Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda hemen argitaratuko da:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-fasea» – «Partziala»).

Hirugarrena.– Argitara ematen dira oposizio-fasea gainditu duten izangaiei esleitutako behin betiko puntuazioak.



Laugarrena.– Behin betiko puntuazioaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, berraztertze errekurtsoa jarri beharko dute deialdiko 11. oinarrian aurreikusitako izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 23a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.